

EUSKARA

Maialen ARREGUI TORRES

AHOZKO TRADIZIOA LEHEN
HEZKUNTZAKO IKASLEEN
EUSKARAZKO AHOZKO
ADIERAZMENA HOBETZEKO
BALIABIDETAKO.

*LA TRADICIÓN ORAL COMO RECURSO
PARA LA MEJORA DE LA EXPRESIÓN
ORAL EN EUSKERA DE LOS ALUMNOS DE
EDUCACIÓN PRIMARIA.*

TFG/GBL 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**AHOZKO TRADIZIOA LEHEN HEZKUNTZAKO
IKASLEEN EUSKARAZKO AHOZKO
ADIERAZMENA HOBETZEKO BALIABIDETAKO.**

*LA TRADICIÓN ORAL COMO RECURSO PARA LA
MEJORA DE LA EXPRESIÓN ORAL EN EUSKERA DE LOS
ALUMNOS DE EDUCACIÓN PRIMARIA.*

Maialen ARREGUI TORRES

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

Ikaslea / Estudiante

Maialen ARREGUI TORRES

Izenburua / Título

Ahozko tradizioa Lehen Hezkuntzako ikaslee euskarazko ahozko adierazmena hobetzeko baliabidetako / *La tradición oral como recurso para la mejora de la expresión oral en euskera de los alumnos de educación primaria.*

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Paula KASARES CORRALES

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika / Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udazkena/Otoño

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatu zuen 2010eko uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak bere III. kapituluaren hiru artikuluetan ezartzen du Gradu ikasketen ofizialei buruz: "... ikasketen horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketen planaren amaieran egin behar da, eta tituluekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación delakoak) egiaztatutako tituluen txostenaren arabera, 12 ECTSko (hau da, European Credit Transfer System edo Kredituak Eskualdatzeko Europar Sistema delakoaren) 12 kredituko edukia dauka.

Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketen plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen.

Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira. Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, *oinarrizko prestakuntzako modulua/ak* lan osoan zehar garatzen dira, izan ere, lana egiterako orduan kontuan hartu dira lau urte hauetan zehar, graduiko ikasketa hauetan ikasitakoa, hau da, ahozkoatasuna, haur folkloreak erabilera hizkuntzaren hobekuntzarako, haur literaturaren hizkuntza baliabideak, etab.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak nire proposamena izeneko lanaren laugarren atal osoan zehar zehazten da. Bertan didaktikoki, haur folkloreak erabilerak haurraren hizkuntza aberastu eta sakontzen duela eta horretarako zein elementu erabil eta nola landu daitezkeen ikus daiteke.

Halaber, *Practicum modulua/ak*, eskola praktikek eta Gradu Amaierako proiektua barne izanik, euskal ahozko haur literaturaren corpusa eskoletan islaturik ikusten ez dela aztertze bidea eman digu. Curriculumean teorikoki idatzirik ageri dena, hainbat eskoletan praktikara eramaten ez dutela ikusi dugu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Sarrera” / “Introducción” eta “Ondorioak”/ “Conclusiones” izeneko atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den derrigorrezko laburpena ere.

LABURPENA

Proiektu honen bitartez, nire helburu nagusia ahozko tradizioa Lehen Hezkuntzako ikasleen euskarazko ahozko adierazmena hobetzeko baliabidetzat erabiltzea da. Horretarako, lehenik eta behin, ahozko tradizioaren inguruko marko teoriko bat osatuko dut; bertan, kulturako parte dugun baliabide hau definitu eta haur folkloreak garrantzia azpimarratuko dut. Horretaz gain, ahozko tradizioaren barruan aurki daitezkeen generoak esplikatuko ditut, bai eskola arloan eta baita etxean ere beraien berri izan dezaten.

Behin marko teorikoa osatuta, curriculumera pasatuko naiz. Izan ere, curriculumak bere garrantzia ere badu proiektu honetan; honek haur folkloreak inguruan erraten duena aipatu eta nire esperientzia propioarekin osatuko dut.

Atal praktikora pasatuz, bai eskolan baita etxean ere erabil daitezkeen baliabideen proposamenak sortuko eta aipatuko ditut.

Azkenik, proiektua egin ondoren ateratako ondorioak azalduko ditut.

Hitz gakoak: Ahozko tradizioa; haur folklorea; ahozko haur tradizioa; herri literatura.

RESUMEN

Mediante este proyecto, mi objetivo es presentar una propuesta de utilización de la tradición oral para la mejora de la expresión oral en euskera de los alumnos de Educación Primaria. Por ello, en primer lugar definiré el concepto de la tradición oral y otros conceptos importantes relacionados con la tradición oral y que pueden ser de gran utilidad para poder comprenderlo.

Seguidamente, analizaré lo que el curriculum de Educación Primaria establece sobre ello, y su aplicación en el aula basándome en mi propia experiencia.

A continuación, expondré mis propuestas para mejorar la tradición oral, dentro y fuera de las aulas.

Finalmente, mencionaré las conclusiones que he obtenido al completar el marco teórico.

Palabras clave: Tradición oral; folclore infantil; tradición oral en edad infantil; literatura oral vasca.

ABSTRACT

With this project my main aim is that children will be able to improve their oral expression with the basque language. For that, firstly I will define what the oral tradition is and other key concepts that can be important to understand the topic.

Then, I will explain what the curriculum says about it and I will complete the task with my own experience that I can have in different types of school.

After finishing the theoretical part I will give several suggestions to use the oral tradition's techniques inside and outside of the classroom; with the teacher and classmates and with the family and friends.

At the end, I will give my own conclusions about that project.

Key words: oral tradition; child folklore; oral child tradition; basque folk literature.

AURKIBIDEA

INTRODUCCIÓN

1. Marko teorikoa	1
1.1. Ahozko tradizioaren kontzeptua	1
1.2. Ahozko haur tradizioa	3
1.3. Herri literatura	5
1.4. Generoak	6
2. Haur folklorea Lehen Hezkuntzako curriculum-ean	15
2.1. Curriculum-ak zer dio ?	15
2.2. Gaur egun zer egiten da ?	19
3. Ahozko tradizioa bultzatzeko proposamenak	21
3.1. Ikasgela barruan eta kanpoan erabiltzeko baliabideak	22
3.2. Etxean, familiarekin edo lagunekin erabiltzeko baliabideak	32
3.3. Ahozko baliabide hauen bidez lortuko ditugun hobekuntzak.	36
4. Conclusiones	41
5. Bibliografia	43

INTRODUCCIÓN

<i>Iraganeko katerik gabe</i>	(sin la cadena del pasado)
<i>Zer litzateke oraina</i>	(qué sería el presente)
<i>Etorkizunak presente baitu</i>	(el futuro tiene en cuenta)
<i>Iraganeko orbaina</i>	(la rastro del pasado)

...

Unai Muñoa (bertsolaria)

Teniendo en cuenta las palabras del bertsolari Unai Muñoa, es verdad que para entender el presente es imprescindible mirar hacia el pasado y entenderlo. Esto es, en cierto punto, lo que nos enseña la tradición oral y lo que me gustaría reflejar mediante este proyecto.

La tradición oral sigue presente en nuestras casas. ¿Quién no ha escuchado historias del pasado contadas por nuestros abuelos/as? ¿Quién no ha aprendido canciones, juegos,... de sus abuelos/as? Es necesario mantener esas canciones y juegos para poder transmitirlos de generación a generación.

Pero estas costumbres también se están perdiendo. ¿Dónde han quedado esos entrañable momentos junto al fuego donde los abuelos nos contaban historias y nos cantaban canciones? Antes era habitual que después de comer o cenar los abuelos/as contaran a sus hijos historias, canciones, refranes, adivinanzas...

En cambio, hoy en día es diferente. En el siglo actual, hemos dejado atrás los juegos y canciones tradicionales para pasar a jugar o cantar, los juegos o canciones, que se escuchan hoy en día. La aparición de las nuevas tecnologías (móviles, video juegos... ha sido la causa de la desaparición de la tradición oral. ¿Por qué?

Hoy en día, los niños ya no juegan tanto entre ellos, y es más común el uso de juegos individualistas que promueve la televisión. ¿Cómo podemos dar la vuelta a esta situación? ¿Qué podemos hacer los padres y profesores? Mediante este proyecto intentaré responder a estas dos cuestiones.

En la mayoría de los colegios, si preguntamos a los niños sobre los juegos tradicionales, no saben darnos una respuesta. Sin embargo, en escuelas de pueblos pequeños, nos podrán responder con más facilidad, ya que, muchas familias han transmitido a sus hijos lo aprendido en sus casas. Por ello, es necesario que las familias y los docentes trabajen juntos para que los recursos de la tradición oral enriquezcan en la mejora del euskera de los niños/as. En algunos casos, la profesora al no ser de la misma zona, no conoce la tradición oral y no ayuda en su recuperación, utilizando otros recursos. Por todo ello, creo que es necesario exponer la importancia de la tradición oral porque en ella está gran parte de nuestra cultura, y es un valioso recurso para la mejora del euskera de los alumnos de Educación Primaria.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Ahozko tradizioa

Ahozko tradizioaz mintzaten hasi gara eta honek duen garrantzia azaltzera pasatu baino lehen argitu dezagun zer den ahozko tradizioa.

Ahozko literaturaren definizio erabateko bat ematekotan, http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0301/eu_d0301012/0301012.html webgunean,

Mircea Eliade-k, formulatutakoa erabiliko dut: «Noizbait norbaiten ahotik irten dena eta oroitzapen kolektiboak gorde izan duena». Esaldi horrek hainbat bereizgarri ditu bere barruan. Batetik, egilea *norbait* edo *nor* denez, ez daukagu egile ezagunik, ez dugu ezagutzeko moduko pertsonarik produkzio horren atzean. Norbait horrek sortua eta jalgia, entzuleek entzun eta *gogoan* gorde izan dute; memoria, oroimena da sorkuntza horren gordelekua. Transmisioa ahotik belarrira egin da, hurrengo belaunaldiek errepikatu dute eta etorkizunean ere errepikatzen jarraituko dute, *norbait* horrek sortutako soka hori moztzen ez den bitartean.

Izan ere, tradizioa ahozko ondarearen bidez erreproduzitu da belaunaldiz belaunaldi, gizarte batek gorde dituen kultura, esperientzia eta ohiturak, ipuinetan, abestietan, jokuetan eta beste batzuetan gordetakoak bilduz.

XX. mendean bilketa lan handiak egin dira corpus handiak antolatuz, adibidez, On Joxe Miel Barandiaranen, Resurrección Maria De Azkueren, On Manuel Lekuonaren lan-bilduma aipagarriena.

Etimologikoki, belaunaldi batek bertzearen eskuetan jartzen duen ondarea da tradizioa. Hala ere, Unesco (www.unesco.org) haratago joaten da eta ahozko tradizioa bere osotasunean definitzen du:

Tradizioaren eta ahozko adierazmenaren eremuan, solasteko forma anitz daude; hala nola, asmakizunak, ipuinak, haurren kantak, legendak, mitoak, poemak, etb. Tradizioaren eta ahozko adierazmenaren funtsa ezagutzak, balore kultural eta sozialak, eta taldeko oroimena transmititzean datza. Beharrezkoak dira kultura desagertu ez dadin.

Bertzalde, zenbait autorek tradizio hitza erabili ordez, folklore hitza erabiltzen dute... Folklore kontzeptuak adierazpen herrikoi osoa bildu nahi du, zein hitzezkoa, zein beste baliabidez egina. Hitz hori W.J. Thoms-ek asmatua da, folk (herria) eta lore (jakinduria) hitzen elkarketaz; herriaren jakinduria adierazi nahi du, beraz, eta ohitura multzo baten adierazle izango litzateke.

Hala ere, ahozko tradizioa erro alemanez osaturiko hitza dugu, Thoms-ek hitz hori alemaneko Volksgeist (herriaren arima) hitzetik hartu baitzuen.

Juan Kruz Igarabidek, (2003. urtean) hiru zutabe nagusi bereizten ditu ahozko tradizioa berreskuratzeko gune bezala: batetik, familia. Izan ere, hasieran aipatu bezala, lehen etxeetan sutondoak jartzen ziren denak. Gaur egun, Iragabidek dionez, sutondotik ohe ertzera pasatu da eta beharrezkoa da mantentzea. Izan ere, bertan omen dago **ahozko haur tradizioaren** gune nagusia. Bertzetik, eskola aipatzen du. Egia da eskolak etxea ordezkatzen duela momentu anitzetan. Juan Kruz Igarabidek dio eskolan bertan garatzen dela literatura-jolasak eta beraz beharrezkoa da hoiek bultzatzea.

Akitzeko, azken zutabe bezala haur literatura dugu. Juan Kruz Igarabidek honako hau aipatzen du: *“Literaturaren sorburuan tradizioa dago, hala ahozkoa nola landua. Haur literatura batik bat ahozko tradiziotik hurbil ibili ohi da; tradizio hori berpiztu eta hurrei itzultzen die....Tradizioa erabiltzea da kontua, harekin jolas egitea, aldaera literarioak zein ahozkoak asmatzea...”*

Atal honi amaiera emateko Jon Juaristiren hitzetara joango naiz.

*«Ahora bien, que los estamentos inferiores de la
sociedad vasca fueran mantenidos en el analfabetismo*

no quiere decir que carecieran de una literatura propia.

Por el contrario, poseían una tradición oral, si no tan rica como la de sus vecinos de lengua románica, no por ello menos interesante».

(Jon Juaristi, 1987, 15 or.)

1.2. Ahozko haur tradizioa

Ahozko tradiziotik heldu zaizkigun molde poetiko anitzek nolabaiteko antzezte elkarreragilea eskatzen dute. Hau da, hurrei egiteko bat ematen zaie, erritmo jakin batean mugitu behar dute, modu zehatz batera jokatu, formula jakin batzuk erran, modu batean erantzun, kantatu... Hori egitean gizartearen arauak eta hizkuntza formak barneratzen dituzte, baita taldeko partaide gisa jokatzeko ikasi ere (Colomer, 1999: 39).

T.Colomerrek (1999) haur folklorea hiru zatitan banatu zuen:

- ***Soinu eta mugimendu estimuluen arteko harremana:*** ahotsa, entonazioa, melodia, erritmoa, mugimendua,...
- ***Lotura afektiboa, jolasa eta honako gozamen hauen aurkitzea:*** ebakera saiakerak, errepikapenak, oroimena landuz sortzea, jokoak eta forma.
- ***Honako gozamen hauek eragiten duten lotura soziala:***
 - Bertzeekin jolasean aritzea.
 - Hitzaren iaotasuna.
 - Arau sozialak edo munduaren funtzionamendu arauak urratzea.

Izan ere, garai batean gure hizkuntzarekiko izan ziren oztopoak ahozko tradizioaren desagertzearen eragina izan dute eta haur literatura sortzearekin batera ahozko tradiziotik eratorritako materiala ere erabiltzen eta berreskuratzen

hasi da. Berreskurapen horretan beharrezkoa da haurrei joko gisa planteatzea, dibertigarria den zerbait bezala.


Azken finean, kulturaren zati bat berreskuratzen ari gara, altxor bat dena eta kultura anitzetan aurki ezin daitekeena. Hori da ahozko tradizioa berreskuratzearen arrazoi nagusiena.

Eskola ezagutza teorikoak transmititzeko eremu bezala kontsideratzen da, baina ezin dugu ahaztu horretaz gain gauza anitz eskura dezakegula eskolatik. Horregatik, folklorea ere irakatsi behar da, pertsonak bezala hazteko balio baitu. Izan ere, haurra kulturako parte bilakatu behar dugu, kanpora irteten denean, gizarteratzen laguntzeko eta baztertuta ez sentitzeko.

Atal honekin bukatzeko, aipatu ikasleek horrelako ipuin, kanta, jokuekin,... gauza anitz ikasten dutela:

- Taldean lan egiten.
- Gizarteratzen.
- Euskara erabiltzen (proiektu honen helburu nagusiena da).
- Hurrengo belaunaldiei transmititzen.
- Kulturako parte den hori mantentzen.
- Beren gurasoek aritzen ziren jokuekin ongi pasatzen.
- Bai neskak eta baita mutilak ere elkarrekin jolasten.

Azken puntu hau hobeki azaldu nahiko nuke. Izan ere, gurasoei lehen jolasten zuten jokuen inguruan galdetzen nienean zenbait jokutan neskak eta mutilak elkarrekin aritzen zirela aipatu zidaten. Horrek arreta piztu zidan, izan ere, lehen gaur egun baino sexismo gehiago zegoen eta neska eta mutilen arteko bereizketa garbiagoa zen; baina bistan denez, ez zen beti edo familia gehienetan berdina pasatzen. Joku horietako bat honako hau da:



Ahulkien inguruan dantza egin behar dute lehengo kanta baten bidez.

1.3. Herri literatura

Gaur egun arte ikerketa anitz egin dira ahozko tradizioaren sailkapenaren inguruan.

Literaturaz hitz egiten denean, gainerako zehaztasunik ematen ez bada, literatura idatzia datorkigu lehenengo burura guztioi. Baina berez elkarren osagarri dira literatura idatzia eta ahozkoa, biek osatzen dute ahozko tradizioaren corpusa.

Jon Kortazarren arabera (1955), tradizioa, komunitatean irauten duen mintzaira produkzioaren formalizazioa da. Igorpena mezu estetikoaren komunikazioari bakarrik dagokio, igorlearen eta hartzailearen artean, eta baliteke ez berriro gertatzea.

Honek ondorio garrantzitsu batera garamatza ahozko literaturaren ikerketa eremuan: bi ahozko literatura mota daudela erratera: alde batetik, tradiziozkoa, gero igortzen dena, komunitateak berea egiten duena; bestetik, ez tradiziozkoa: komunikazio estetiko behin bakarrik egiten da eta, agian denborarekin tradizionaltzea gerta baliteke ere, hasiera batean ez dago errepikapenik. Jon

Juaristik ere (Kortazar, 1997) bereizketa hau mantentzen du: tradiziozkoak diakronikoki irauten du komunitatean ahoz aho igorritik eta ez tradiziozkoak, ordea, une baterako ekintza batean gertatzen da; ez dago errepikapenik, ez dago tradiziozko. Bertsolarien produktu asko arlo honetan sartzen ditu: behin bakarrik kantatuak izateko egiten baitira.

1.4. Generoak

Herri literatura liburuan (2009) argi ikus eta azter dezakegun bezala, Eusko Jaurlaritzak (2009: 25-68), euskal ahozko literaturan hainbat genero ezberdin aurki ditzakegu; hala nola, erretratuak eta esaterak, igarkizunak eta aho korapiloak, poesia ludiko-koralak, koplak zaharrak, baladak eta kantu narratiboak, bertsolaritza, ipuinak eta herri-antzerkia eta pastoralak.

Generoak hiru multzotan sailkatuko ditut; batetik, narratiboak direnak; bertzetik, poesiaren esparruan sartzen direnak; eta azkenik, dramatizazioa lantzen den generoa.

a) GENERO NARRATIBOAK

Ipuinak

Mundu osoan hedaturiko generoa da, eta oso antzinatek ezagutzen da. Kristo baino hamahiru mende lehenagotik badira ipuinen aztarnak, bai Egipton, bai Kaldean. Arabiarren kulturako Mila gau eta bat gehiago bilduma aipatzea aski da ipuinaren erakarmena eta indarra antzinatek datorrela ikusteko.

Ipuin, pasadizo edo istorioak esatea nekazaritza eta baserri giroarekin lotua dago gehien bat, familia beheko su edo mahai inguruan elkartzen zenean, edo etxeoak zein auzokoak lan ekitaldi luzeak egiten zituztenean. Halakoetan, mahaiaren edo sutondoaren inguruan, eta lan saio luzeen ondoren iluntze gauetako kantuak kantatu, kontuak esan eta belarrik belarrik transmititu den ahozko esataritza garatu da.

Pierre Laffitek, herri ipuinak kontatzen ziren bortz testuinguru bereizi zituen:

- Sutondoa.
- Mahai ingurua: hala nola, ezteietan, bataioetan, ...
- Ostatua: adibidez, kartetan ari ziren bitartean.
- Eskaratzea: lanean ari zirela.
- Ehizan.

Honetaz gain, bortsz ipuin mota ere nabarmendu zituen:

- Paganoak: Euskal mitologiako pertsonaiak agertzen zirenak (Mari, Basajaun, Tartalo, ...)
- Basa-giristanoak: Testamendu Zaharra, Testamendu Berria, Sainduen Bizitza,...
- Basa-historikoak: Egiatzko gertakariak, jendearen oroimenean moldatuak izan direnak.
- Amets-hutsezkoak: Pertsonaia aunitz agertzen dira; hala nola, sorginak, ijitoak, kontrabandistak...
- Irri-solasak: irrigarriak direnak. Adibidez, Getariako Egia.

Ipuina diogunean, herri ipuina, tradizioko ipuina dugu gogoan; asmatutako gertakizunen kontraera da, gizartean belaunik belaun igaro dena, taldearen barruan, egile edo jatorrizko bertsioaren berririk eta zantzurik gabe. Kontatutako gertaerok ordena logiko batean kateatzen dira, prosaz esanda, eta horren emaitza ipuina da.

Tradizioko ipuina bizia da, etengabe aldatzen eta moldatzen doa, esatariaren eta entzulearen arabera. Kontalariak, narratzaileak, ipuina kontatzean baliabide jakin batzuk erabiltzen ditu, jakinaren gainean edo oharkabea. Ipuin tradizional hauek funtzio batzuk dituzte (Propp-ek aztertuta) edota formula jakin batzuk; izan ere, kontakizun bakoitzaren ipuina berregin egiten du, narrazioa eguneratuz. Bestalde, zenbait azpigenero ere bereiz daitezke, besteak beste: ipuin harrigarriena, non sarrerako formula oso garrantzitsua den, zeren beste denbora imaginario batera baikaramatza ("behin batez"); elezaharretan, ostera, lekuaren eta denboraren

zehaztapenak garrantzi handia du, kontakizuna historia barruan kokatu nahi baita, eta ez denbora imaginario batean.

b) GENERO POETIKOAK

Errefrauak eta esaerak

Errefrauak esaldi laburrak dira, gehienetan elipsiaz ulertu beharrekoak; batzuetan esaldi izatera ere ez dira heltzen, hitz bi ere nahikoa izaten baitira errefraua osatzeko. Hala ere, aipatzekoa da, nahiz eta esaldi sinpleak izan, beren baitan herri jakituria jasotzen dutela bizitza eta inguruarekin zerikusia duten hainbat gai edo arloen bidez. Esaldia laburrak izate horrek, gogoan hartzea errazten du, nahiz eta zenbait baliabide ere erabil daitezkeen: erritmoa, geldialdi erritmikoak, errima edo soinu-jokoak, antzeko hotsa duten hitzen bitartez eginiko soinuak edota antzeko-kontrako soinu-esanahien arteko jokoak.

Literatura genero honi, euskaraz, izen diferenteak eman izan zaizkio: errefrau, esaera zahar, errefain, esakune, esaera, erranairu, erran zahar, zuhur-hitz, atsotitz.

Bertzalde, zientzia ikuspegitik bereizi egin ohi dira errefrau eta esaerak. Lehenengoek halako jakituria, irakatsi edo mezuren bat adierazten dute. Errate baterako, "Goiz gorri, arrats euri". Esaerak, aldiz, berba-kate finkoak dira, esaldi eginak, eta osotasun horrek hitz bakar baten adiera hartzen du. Adibidez, "olgetan-benetan" txantxetan adierazteko (Etxeberria eta Kalzakorta, 2009: 25).

Igarkizunak eta aho korapiloak

Asmakizunek osagai bat baino gehiago bateratzen dituzte. Alde batetik, jolasa, jokoa dira, emandako sasi deskribapen bat, edo soinu-jokoen bitartez adierazita, beste zerbait asmatu behar da. Denbora-pasa gisa balio du, eta baita adimena lantzeko ere.

Igarkizunen oinarritzko ezaugarria da haien izaera definitu gabea eta, beraz, pragmatikaren eginkizunerako alor garrantzitsua dira.

Igarkizun mota hauek bereiz daitezke:

- Elkarrekiko igarkizunak (konbentzioak eta erreferentearen deskribapenak errespetatzen direnak): hauen artean literalak (informazio osoa eskaintzen dute asmatzeko) eta inplikaziozkoak (informaziorik garrantzizkoena eskaintzen dute).
- Elkarrekikoa ez direnak (ez dago ziria sartzeko asmorik): metaforazkoak, pertsonifikaziozkoak.
- Bide okerretatik eramaten gaituzten igarkizunak (eskaintzen diren datuek ez dute konbentzioa errespetatzen): iruzurrezkoak, polisemiazkoak eta paradoxazkoak.

Aho-korapiloei dagokienez, izenak berak adierazten duenez, ahoskatzeko orduan korapilatzen diren esaldiak dira. Berbak ondo ahoskatzen ikasteko, mihia bizkortzeko ariketa ederrak dira. Sarritan jokoa egiten da zeinek arinago esan, edo esaldia zortzi, hamar, hamabi bider norik esango arnasarik hartu gabe. Adibidez, *akerrak adarrak okerrak ditu* (ibid: 28)

Poesia ludiko-koral

Herri literaturako poesietako ohiko osagaiak dauzkate: dantza, musika eta letra. Lekuonak (ibid: 29) honetara banatu eta sailkatzen ditu:

- ***Poesia dekoratiboa***: Poema laburrak dira, esanahi argirik ez dutenak. Normalean haurrei abesten zaizkie, haiekin jolasteko, horregatik garrantzitsuena erritmoa da. Testuari dagokionez, ez dute irudi figuratiborik erabiltzen, soinuak du garrantzia.
- ***Egitura paralelistikoak***: Halako poemetan behin eta berriz errepikatzen dira osagai berdinak, egitura berbera; hitz batzuk aldatzen dira progresioa eraginez, baina beti molde berean.
- ***Leloak***: Poema batzuetan leloak leku eta betekizun apartekoa du. Lekuari dagokionez, hasieran eta amaieran egotera, zikloa hasi eta amaitu, biribildu egiten du. Batzuetan lehenengo bertsoa barik, bigarren edo beste bertso bat

errepikatzen da azkenean, baina edozein kasutan lehenagoko bat, hura errepikatu eta ideia indartzeko xedeaz.

- **Enumerazioak:** Kantu mota honetan, kateak lotzen dira, jeneralean zenbakien bidez adierazita, progresioa erakutsiz, gutxitik askora, txikitik handira edo bestelako irizpideren batekin, baina beti logika bati erantzuten diola.
- **Elkarrizketa errimatuak:** Galdera-erantzunez osatutako elkarrizketaren bidez katea sortzen da, galdera baten erantzuna berriro itaun bihurtuta.

Kopla zaharrak

Euskal herri-poesiaren tradizioiko altxorrik handien eta baliotsuenetarikoa osatzen dute kopla zaharrek. Koplak dira eta gehienetan sortan, kateatuta kantatzen dira; eta zaharrak dira gure herri-tradizioan zaharrenetarikoak direlako, finenak izateaz gainera. Erdi Aroko garai ilunean jartzen diete jatorria zenbait aztertzailek; hala Juan Carlos Guerrak (ibid: 32), Manuel Lekuonak (ibid: 32) edo Txomin Peillenek (ibid: 32) kasurako.

Manuel Lekuonak (ibid: 32) eta Jose Ariztimuño *Aitzol* (ibid: 32), kasurako, era honetako koplaren egitura berezia ohartu zuten. Izan ere, kopla bakoitzak lau bertso-lerro baditu; lehenengo biek irudi bat adierazten dute, abstraktua, naturako elementuren baten erreferentzia; eta beste biek, itxuraz aurrekoarekin zerikusirik edo loturarik ez daukan beste zerbait. Ariztimuñoen hitzetan *irudia* alde batetik eta *oldozkuna* bestetik; Manuel Lekuonaren esanean, elkarren artean lotura logikorik gabe lotuta. Hala ere, herriak hain estimu handiz gorde izan baditu, euren buruan halako zerikusi ezkuturen bat sentitu dutelako omen da. Hala, lehenengo partean kontzeptu estetiko zehatz bat adieraziz gero, ederra, onena, gorena edo antzeko zerbait, hurrengo zatian horren jarraipena ikusiko du.

Dena den, elipsi-jokoa da nagusi: irudiaren bitartez, hitzik esan gabe, adierazten dira kontzeptuak eta sentsazioak.

Kopla guztiok aurrez finkatuak izaten dira, tradiziozkoak, ez dira bat batean asmatzen. Belaunez belaun ahotik belarrira transmisio zuzenean heldu dira, eta

garai zaharretan sortu ziren moduan onartu eta jaso ditu herriko jendeak, gaur egun ere halaxe edo antzatzean errepikatzen direla.

Baladak eta kantu narratiboak

Baladak kantu narratibo laburrak dira eta estilo ezaugarri bereziak dituzte, gainerako generoetatik bereizten dituztenak. Euskal literaturaren barruan *erromantze* izena erabili da aspalditxodanik, baina azken mende-laurdenetik hona izen biok bereiztera jotzen da. Europako literaturaren terminologian *balada* erabiltzen da orokorrean. Gaztelar erromantzea, balada orokor horren barruan eredu berezia izango litzateke. Euskal baladen erreperitorioak, ostera, Europako baladen corpusarekin zerikusi argiagoa daukala esan daiteke, erdal *romancero* delakoarekin baino, bai gaietan, bai irudietan, bai literatur baliabideetan; are gehiago, Iparraldeko balada multzo ugariak.

Baladaren estilo berezia Erdi Aroan finkatu zen Europan orokorrean, eta gaur arte iraun du, beti ere gehiago ahozko kulturak bizirik dirauen lekuetan, gaur egungo literatura idatziak, komunikabideek eta hiri-bizimoduak asko murriztu baitute ahozko transmisioaren katea. Herri bakoitzean baladak forma berezia hartzen du, guztietan du ukitu berezia eta ezberdina, forman (estrofatan banatuta edo ez, errimatuak edo ez) dela, irudiak egiteko errekurtsioetan dela, edo bertako epikan oinarritzen delako dela. Edozein modutan ere, azpiko oinarria berdintsua dute guztiek, eta elkarrekin parekatu eta konparazioak egin daitezke.

Baladak, normalean, istorio labur baten berri ematen du, hasi eta amaitu, eta, gehienetan, hasieratik bertatik gertaera erabaki-unean aurkezten zaigu, edo argitu edo azken txarrari hasiera emateko unean. Gertaerak ere bortitzak eta gogorak izaten dira gehienetan: ezinezko maitasun-istorioak, indarkeriazko heriotzak, hilketak, borrokak eta antzekoak.

Pertsonaiak nolakoak diren ez zaigu ia ezer esaten; euren hitzez edo ekintzen bidez erakusten dute zelakoak diren. Ia inoiz ez dago pertsonaien jokabideaz iritzi moralik ez zertzelada berezirik. Baladetan agertzen diren deskripzioak azaleko eta gain-gainekoak izaten dira; berri zehatzik apenas ematen

da, ez leku, ez denbora, ez pertsonaia, ez ekintzen inguruan. Baladak herriko jende gutxi ikasiaren artean zabaldu izan dira batez ere, eta kantaldi bakoitzean berriren berriz sortzen dira. Horrela jokatu izanaren ondorioz, berezko ezaugarria dute etengabe aldatzen egotea, bai testuan bai doinuetan nabari diren aldaketak eraginez.

Ahozko tradizioak indartsu dirauen lekuetan eta literatura idatziak edo bestelako kulturak eragin modurik eduki ez duenean, aldaketa horiek balada bizirik gorde dute, apurka-apurka herriko entzuleen bizimodu, pentsaera, sinesmen eta sentimendu beharretara egokiturik.

Ahozko herri-arte mota guztiak bezala, baladetan ere lehenari eusteko joera handia dago. Baladen formari dagokionez, bertsoz ematen dira. Bertso-kate luzeak dira, bertso pareetan errima gordetzen dutela. Euskal balada gehienak estrofatan banatzen ditugu, eta estrofak lau bertso-lerrotan.

Lau bertso-lerro izan ezkerre bigarren eta laugarrenak errimatzen dute. Bitan eman ezkerre, bakoitzak bertze hemistikio bi ditu, eta bertso biek errima dute amaieran (Etxeberria eta Kalzakorta, 2009: 42).

Bertsolaritza

Bertsolaritza dugu euskal ahozko literaturan adierazpenik berezkoena. Bertsolariak, formula-almazen bat erabiltzen du, aurretik bertso asko entzunez eta hizkuntza barruko esaerez hornitua; hala ere, beraren helburua ezustekoa sortzea da, arrazoi bitxiak eskaintzea, kontrarioa menderatzeko edo entzuleria bereganatzeko, beti ere gai baten edo batzuen inguruan arituta. Bertsolari hauek aurrean daukaten publikoa ez da bat eta bakarra, pentsaera eta sentimendu ezberdin askotakoak daude, eta zuhur ibili behar dute ateraldi egokia asmatzeko, entzuleak zirikatzeaz gainera inor mindu gabe. Saio tankeraren arabera, batzuetan gai-jartzaile batek eman edo zuzentzen die gaia bertsolariei.

Xabier Amurizak (ibid: 46) bertsolaritza kirol mota bat dela erran du, erritmoarekin eta errimarekin kantatuz egiten dena.

Bertsolariak noiztikoak diren jakiten erraz ez badago ere, batzuen ustea da, moduren batean ia euskara bera bezain garai zaharrekoak ez ote diren. Baina bertsolaritzaren aztarnarik ez egotearen arrazoia ez da bat-bateko bertsoak gordetzeko bitartekorik ez egotea bakarrik. Horrez gainera, bertsolaritza sagardotegietako giroarekin, jan-edanarekin eta bizimodu arloarekin lotu izan da, eta ez garai hain zaharretan bakarrik. Badaezpadako ospe hori uxatu eta herri literaturaren adierazle bikainenetakoa dela aitortzea, besteak beste, eta batez ere, Manuel Lekuonari zor zaio. 1935ean argitaratu zuen *Literatura oral euskérica* lan zoragarrian bertsolaritzari literatura maila goratua aitortu zion.

c) DRAMATIZAZIOA

Antzerkia

Antzerki herrikoari dagokionez, indar betean Zuberoan ezagutu dugu batez ere. Eta antzerki-mota herrikoien artean pastoralak da, ez bairik gahe, ez agunena eta zabalduena. Herriko plazan egiten da emanaldia, antze-aula pilota-lekuko paretari erantsita.

Antzezleriak musika monodiko bat errepikatzen du, pausoaren erritmoa eramanez: lehen hemistikioa aurreraka, eta bigarrena atzeraka. Onak eta gaiztoak bereizten dira, bai antzezlekura sartzeko duten ate bereziagatik, bai jantziengatik, bai ibiltzeko moduagatik. Beste zenbat antze-molde herrikoie ere aipa daiteke, hala nola: maskaradak, non gorriak eta beltzak bereizten diren, elkarren lehian, eta pertsonaiak langintza anitzen ordezkari izan ohi diren; inauteetako fartsak, xaribariak, asto-lasterrak...

Antzezleak herriko jendea dira, ez dago profesionalik, urte osoa ematen dute antzezpenean prestatzen, izan ere, urte bakoitzean herri batek dauka prestatzeko ardura. Herrien arteko lehiak egoten dira nor hobeto egin, zotzetan erabakitzen dela hurrengo urtean zeinek egin. Garai zaharretan antzezle guztiak gizonezkoak ziren; noiz edo noiz egin omen zen emakume hutsez lanetan bat ere. Gaur egun, beste arlo batzuetan bezala, normaltasun osoz sartu dira emakumeak antzezle, eta nahastean jarduten dute.

Iraupenean ere aldaketak izan dira. Antzina egun bat edo bi osorik izaten ziren antzezpenerako. Gaur egun, ostera, pastoralak berak hiru ordu inguru irauten du. Hori bai, aktoreak egun osoan dabilta herrian zehar, desfilea eta dantzak egiten, goizetik arratsera (Etxeberria eta Kalzakorta, 2009: 69).

2. HAUR FOLKLOREA LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUM-ean.

2.1. Curriculum-ak zer dio?

Hartu dezagun *curriculum-a* eskuen artean (Nafarroako Gobernua, 2007, 51-52) momentu batez. Zer dio dokumentu honek ahozko tradizioaren inguruan?

1go zikloa	2.zikloa	3.zikloa
<ul style="list-style-type: none"> • Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak, koplak ulertzea, memorizatzea eta errezitatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin. • Narrazio testuak eta izaera poetikokoak (asmakizunak, atsotitzak ...) birsortzea eta berridaztea, ereduak erabiliz. • Irakurketa baloratzea, gai eta testuen hautaketarekiko interesa; lehentasun pertsonalak komunikatzeko interesa; testu literarioa norberaren gozamenerako tresna dela antzematea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko tradizioko narrazio testuen eta olerkien, haur literaturaren, obra klasikoen egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gidatua, euskarri desberdinekin. • Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak, bertsoak ulertzea, memorizatzea eta errezitatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin. • Olerkiak, bertsoak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutzuz. • Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa eta norberaren gozamenerako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko tradizioko narrazio testuen eta olerkien, haur literaturaren, obra klasikoen egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gidatua, euskarri desberdinekin. • Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak ulertzea, memorizatzea eta errezitatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin. • Olerkiak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutzuz. • Olerkien, kontaeren eta antzerki lanen irakurketa komentatua, konbentzio literarioei (generoak, figurak...) eta behin eta berriz agertzen diren gai eta korapiloei erreparatuz. • Bertsoak irakurtzea, errezitatzea,

		<p>entzutea eta osatzea, oinarrizko osagaiak bereiziz: errima, neurria, melodia eta bertsogintza.</p> <ul style="list-style-type: none">• Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa, kultur egitate gisa eta norberaren gozamenerako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea.
--	--	--

<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Entzutea ipuinak, olerkiak, aho-korapiloak, lelotegiak, asmakizunak, abestiak. • Ahozko testuak memorizatzea eta azaltzea, alde zuzeneko lan bat eginez testuaren ulermenari buruz eta parte hartzeko gustua sustatuz. • Narratzea edo errezitatzea ipuinak, asmakizunak, olerkiak, lelotegiak eta aho-korapiloak. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ipuinak edo narrazio laburrak kontatzea, denboraren eta espazioaren koherentziari eutsiz eta haien egiturari ere eutsiz; betiere, intonazioa, etenak, ahotsaren modulazioa eta abar errespetatu beharko dira. • Egile ezagunen (klasikoak nahiz garaikideak) olerkiak errezitatzea, intereseko gai buruzkoak eta norberaren gustuen araberrak. • Testu literarioak sortzen hastea (ipuinak, olerkiak, abestiak, bertsoak eta antzerkirako obra laburrak), emandako jarraibide edo ereduetatik abiatuz. • Adierazpen linguistikorako eta ez-linguistikorako norberak dauzkan aukerak erabiltzea (gorputza, mugimendua, ahotsa), antzerki emanaldietan. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu literarioak sortzea (ipuinak, olerkiak, abestiak, bertsoak eta antzerkirako obra laburrak), emandako jarraibide edo ereduetatik abiatuz. Hiztegiaren, sintaxiaren, fonetikaren eta erritmoaren baliabideak erabiltzea produkzio horietan. • Bertsoek ideiak eta emozioak eraginkortasunez adierazteko dituzten aukerak ezagutu eta erabiltzea: komunikazio testuinguruko parametroak, bertsoaren ezaugarriak, diskurtsoaren sekuentziazioa, hizkuntzaren erregistroak, hizkuntzaren zuzentasuna eta literatur baliabideak. • Bertsoan kantuaren adierazpenerako aukerak ezagutu eta erabiltzea: melodia aukeratzea, intonazioa, intentsitatea, modulazioa, isiltasuna, herri melodiak ezagutzea...
---	---	---

Curriculumak erraten du, testu literarioak irakurtzeko eta interpretatzeko –3. multzoa – lehendik zenbait ikaskuntza batzuk beharko direla; horiek Lehen Hezkuntzan hasiko dira lantzen, errezitatzeekin, joko erretorikoekin, ahozko literaturako testuak entzutearekin edo dramatizazioekin. Horrela, lehen hurbilketa bat eginen da oinarritzko konbentzio literarioetara eta obren eta horien testuinguru historikoaren arteko erlazioetara. Horrekin guztiarekin batera, irakurketaren plazerezko esperientziak eta testu literarioen birsortzea bideratuko dira. Hezkuntza literarioaren orientazio horrek jarraipena izanen du derrigorrezko bigarren hezkuntzan.

Taulan ikusi daitekeen bezala, ipuinak eta olerkiak dira lehenengo bi zikloetan gehien lantzen diren baliabideak; testuak aztertzetik (ulertu eta memorizatzea), testuak sortzera. Horretarako bertze baliabide batzuk ere erabil dezakete; hala nola, erritmoa, gorputza...

Hirugarren zikloan, aldiz, gehienbat bertsolaritza lantzen da.

2.2. Gaur egun zer egiten da?

Denok dakigun bezala, ez da beti curriculumean errandakoa eskoletan islatzen; izan ere, zaila izaten da gauza guztiak praktikara eramatea. Baina egia da, zenbaitzuetan aukeraketa hori egiterako orduan kritikoak ere izan behar dugula. Hau da, eduki guztiak zehatz-mehatz ezin badira landu, nola aukeratuko dugu zer den garrantzitsuena eta zer ez?

Kurtsoan zehar eginiko praktikak anitzak dira, eskola ezberdinetan burututakoak; bai Iruñerriko eskola handietan, baita Baztando eskola ttikiagoetan ere. Ahozko tradizioak batean edo bertzean duen indarra ezberdina da. Iruñerriko eskoletan praktikak egin nituenean, ez zuten nik aipatutako baliabide horietakorik erabiltzen. Izan ere, haurra gehienak euskaldun berriak ziren, eta beren gurasoetako batek ere ez zekienez euskaraz, eskolatik kanpo hizkuntza honen erabilera ez zen ohikoa haientzat. Horregatik, baliabide hauek eguneroko bizitzan txertatzea zaila egiten zitzaien irakasleei.

Aldiz, Baztango eskola ttikietan praktikak egin nituenean, egoera bertzelako izan zen. Haur guztiak euskaldun zaharrak ziren; euskara beren etxeetan ikasia zuten,

beren gurasoengandik ikasia. Bai eskolan, baita kalean ere euskaraz hitz egiten zuten. Erabiltzen zuten hiztegia, beren bailarako hizkera zen eta horrek abantaila bat ematen zien irakasleei; izan ere, haur gehientzat ahozko tradizioaren baliabideak ezagunak ziren eta ez zuten zailtasun aunitzik erakusten. Ahozko tradizioko baliabideei dagokionez, zenbait ariketetan erabiltzen ziren:

- *Baztango ipuinak*: astelehenero irakurketa orduan, hasieran *Baztango ipuinak* (Xorroxin irratia, 2007) bildumako istorio bat aditzen zuten. Hasiera batean liburuxka horrek ekartzen zuen audioko istorioa eta ondoren irakasleak berak irakurri egiten zien. Azkenik, elkarrekin istorioa birkontatzen zuten (nor ziren pertsonaiak, non gertatzen den istorioa, zeri buruzkoa den,...)
- *Lehenagoko jokoak*: ikasle bakoitzak etxekoei galdetuta lehen aritzen ziren joko baten deskripzioa ekarri behar zuen. Behin denek ekarrita, liburuxka antzeko bat sortu eta noizbehinka atsedenaldira joko horietako bat aukeratu eta jolasten ziren.
Egia da, tradizionalak diren joko horietan ere aritzen zirela; hala nola, soka-saltoan eta horretan aritzean kantatutako abestiak lehenago kantatzen zituztenak ziren.
- *Pertsonaia mitologikoak*: eskola gehienetan ematen den bezala, Arraiozko eskolan ere, pertsonaia mitologikoak ezagutzen dira; izan ere, horietako anitz Baztan aldean egondakoak omen dira. Hala nola, Zugarramurdiko sorginak, lamiak,...

Aipatu beharra da irakaslea ere ondoko herrikoa dela eta horrek erraztasun gehiago ematen du haur folkloreaken material hauek erabiltzeko; berarentzat ere ezagunak direlako horrelako materialak eta bere eguneroko bizitzan erabiltzen dituelako.

3. AHOZKO TRADIZIOA BULTZATZEKO PROPOSAMENAK

Curriculumaz aztertu ondoren eta daukagun materiala ikusirik, argi dago material guzirik horri bide eman behar zaiola izan ere gure kulturako parte den aldetik, beharrezkoa da etxean eta baita kalean ere, era zuzenean edo zeharka, baliabide hauek guztiak erabiltzea. Argi eduki behar dugu curriculumaren barruan folkloreak duen helburua ez dela “dantzariak” edota “musikariak” lortzearena; baizik eta hurrari ezagutza batzuk transmititzea, gizartearen barruan garatzen eta bideratzen lagunduko duen jokabide prozedura eta jarrerak eskainiz. Horrela, ezaugarri kultural bereziak dituen giza-talde baten partaide dela konturatu eta ohartuz.

Ez dugu zertan materiala gai teoriko bezala planteatu beharrik. Hau da, zeharka bada ere, zenbait gaietan, ariketetan... landu daitezke. Jolas tokian, adibidez, soka-saltoan aritzean, edo bertzelako jokoetan jolastean ahozko tradizio baliabideak erabiltzea aberasgarria izan daiteke, gero eskolatik kanpo erabiltzeko aukera gehiago dagoelako.

Baliabideak anitz eta askotarikoak dira. Beharrezkoa da gure helburua argi edukitzea eta horren arabera genero bakoitzaren barruan irakatsi nahi dena aukeratzea.

Egia da, ez dela honi buruzko material aunitzik, eta ondorioz, zaila da baliabide hauek eskolan txertatzea. Hala ere, dagoen baliabide eskasa aprobetxatzen saiatu behar gara. Horretarako, adibidez, *Baztan Solasean* liburua (Lakar eta Telletxea, 2006) daukagu, Baztango bailaran eginiko ahozko tradizioaren bilduma. Bertan, bertako hainbat gizon-emakumei eginiko elkarrizketak agertzen dira, non hauek, beren haurtzaroko kontakizunak aipatzen dituzten. Hala nola, istorioak, haur kantar, legendak, jostaketak, eritasunak eta erremedioak, ezkontza kontuak... kontatzen dituzte. Horretaz gain, internetetik ere zenbait webgune aurkitu ditut, interesgarriak diren materialekin (gaiak agertu bezala, orrialdeak aipatuko ditut).

Nire proposamenak bi zatitan banatu ditut; batetik eskolan lantzeko proposamenak eta bertetik etxean, familiarekin landu daitezkeenak, beti ere, helburua berdina kontutan hartuz: ahozko tradizio baliabideak erabiliz, ikasleen euskara maila hobetzea.

3.1. Ikasgela barruan eta kanpoan erabiltzeko baliabideak.

Has gaitezen proposamenak egiten. Lehenik eta behin eskoletan ibiltzeko proposamenak aipatuko ditut.

Ipuinak

Lehenik eta behin har dezagun ipuinen generoa. Ipuin bat egiten ikasteko ipuinaren egitura zein den jakitea beharrezkoa da. Horretarako ipuinak hasteko eta bukatzeko formula batzuk daude. Ondorengo webgune honetan formula gehiago aurki ditzakezu:
http://eibz.educacion.navarra.es/baliabideak/dbh/literatur_sorkun/ipuinak/ipuin_hasierak_irakas.htm.

Ipuinak hasteko formulak:

-Bazen behin...

-Behin batean...

-Munduan beste asko bezala...

-Munduan anitz diren bezala, bazen...

-Landareak eta animaliak mintzo ziren garaian, baziren...

-Behin munduan, asko legez...

Ipuinak akitzeko formulak

-Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan.

-Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan eta ager dadila _____ plazan.

-Haiek ondo bizi baziren, gu ere ondo bizi gaitezen.

-Ongi bizi baziren, arabera hartara hil ziren.

-Egia bada sinets, gezurra bada ez sinets.

Asmakizunak

Asmakizunak ariketa dibertigarriak izan ohi dira haurrentzat. Ez dugu zertan egunero landu behar, baina noizean behin lantzeak ez du kalterik egiten; gehienbat lan aunitz egin ondoren, pixka bat erlaxatzeko. Hona hemen erabili daitezkeen zenbait asmakizun:

“Ure, ure gañian zubie, zubien gañian gizon bat kaska zurie. Zer da?” (gasna)

“Atzean bi zulo eta aurrean bi punta. Zer da?” (aizturra)

Almandoz

“Aite aundie, ama latxa tau mia beltza. Zer da?” (gaztaina)

“Mingainik ezta ta erten du, zangoik ezta ta kurritzen du. Zer da?” (eskutitza)

Lekaroz

Asmakizunak, nahiz eta jolasteko ariketak bezala kontsideratu, irakasteko balio dute. Izan ere, edozein gairen errepaso egiteko erabil daitezke edota ikasleek beraiek asmatu dezakete, gero beren ikaskideei kontatzeko.

Jostaketak

Jostaketa aritzea da hurrei gehien gustatzen zaiena eta joko hauek taldeka egiteko edo bakarka aritzeko izan daitezke. Ondorengo joko hauek, hurrek gaur egun ibiltzen dituztenak dira baina lehenago kantatzen zituzten kantak erabiliz.

• ZOTZ EGITEKO FORMULAK:

Bolerako elizan

“Bin ban boleran

An zer zebillen

Pittiri buru gogorra

“Dona dona katona

Non da gure begorra,

Sutondoan aitona

Ik aizkora, nik aizkora

Lepotik bera kuttuna

Bota dezagun gure begorra

Hau edo neska mutil tuntuna

Erraz gora!”

Azeituna, babarruna”.

Elizondo

Lekaroz

*“Don-don, kandel, miki-maka, mokatel,
larre on, bitoria, gris fuera”.*

Aniz

- **KIRIKETAN ARITZEKO**: taldean jolasteko joko da. Ezkutaketa jokoaren antzekoa, baina harrapatzaileak begiak etsiekin zenbatu beharrean denek ondorengo kanta hau kantatzen diote. Behin kantatuta eta denak altxatuak daudela, beraien bila joan behar da. Baten bat ikusten duelarik “xartela” eta bere izena erran behar du. Adibidez, Naiara ikusten badu “xartela Naiara” erranen du. Guztiak harrapatzeekin akituko da joko.

*“Kiriketan, konketan, eperra, txoketan, nire ondoan dantzatzen dena bera
beteko! Kirik!”*

Almandoz

• HARRAPAKETAN ARITZEKO:

Kantu hau kantatuz, harrapariak bertze haurrak harrapatzen saiatu behar da. Behin bat harrapatuta kate bat sortuko dute eta elkarrekin bertze haurrak harrapatzen saiatuko dira. Katea gero eta handiagoa izanen da, azkenik denak harrapatuak izan arte.

KATE JOSTETA

“Xorgin argin,

Erreketan xorgin

Martin purdi latza

Tipule ta gatza”.

Lekaroz

Beti ere, harrapaketa joko hau molda daiteke; baliteke, talde handi bateko haurrak jokoan daudela eta aspertzeko aukera izan dezakete, jokia akitu arte bertan egon behar direlako. Horretarako, irakasleak moldaketa batzuk egin ditzake eta jokia luzatu. Errate baterako, katean dauden parte-hartzaileak libratzeko aukera ematea. Beti ere, soilik bi aldiz libra daitezkeela aipatuz, harrapatzailea ere aspertu ez dadin.

Bertze aldaera bat ondorengo hau izan daiteke: irakasleak jokia gehiegi luzatzen dela ikusiz gero, bertze harrapatzaile bat gehitu dezake, jokia arintzeko.

Hala ere, nahiz eta aldaketak egon daitezkeen, helburua edo baliabide nagusiena mantentzea beharrezkoa da: kasu honetan, kanta eta katea.

• SOKA-SALTOA

Gaur egun, soka-saltoan aritzean erabiltzen diren kanta aunitz gaztelaniakoak dira. Horregatik, euskaraz dauden gutxi horiek indartzea beharrezkoa da.

1-“Saltoka saltoka nabil ni gustora
salto ta salto bat sartu arte.
Sartu dadila X eta biok elkarrekin
salto eta salto bat irten arte
eman ezazu buelta eta irten zaituz.”

2-“Ama, aita,
zenbat urtekin ezkonduko naiz
Txikia naiz eta ez dakit: bat, bi, hiru,
lau, bortz, sei,...

3- “Aixturak ditut, ireki eta etxi

Lurra ukitu, zerua ukitu,

Belauniko jarri eta irten kanpora.”

4- “Kongito kongito sartu sokara,
kongito kongito ukitu lurra,
kongito kongito ukitu zerua,

kongito kongito hanka batekin,
kongito kongito bestearekin,
kongito kongito orain biekin,
kongito kongito irten sokatik.”

Ondorengo webgune hauetan aurki daitezke soka-saltoan aritzeko kanta gehiago:

- <http://espabilauak.blogspot.com.es/2010/11/soka-saltoan-aritzeko-jolasak-adibideak.html>

- <https://sites.google.com/site/euskaljokuak/teoria/soka-salto>

- <http://www.aisia.net/jolasak/sokasalto-jolasa>. Webgune honetan, sokasaltoan aritzeko kanta ezberdinak aurkituz gain, soka saltoan ibiltzeko modu ezberdinak aurki daitezke; bai ttikientzako eta baita koxkorrentzako ere. Gainera jolas bakoitza azalduta dago. Hona hemen adibide bat:

HILABETEAH SALTOKA

- 1- *Bi taldekidek sokari goraka eragiten dioten bitartean, besteek ilaran itxarongo dute. Abestiarekin batera banan-banan eta jarraian salto egin beharko dute.*
- 2- *Hilabete bakoitza aipatzen denean lagun bat soka sartuko da, salto bat egingo du eta aterako da. Hurrengo hilabetearekin ilaran bere atzean zegoenak gauza bera egingo du: soka sartu, salto bat egin eta sokatik atera. Honela hilabete guztiak aipatu arte.*
- 3- *Azkeneko hilabetearekin batera salto egiten duenak, saltoka jarraitu beharko du hilabete guztiak azkar-azkar aipatzen diren bitartean: urtarrila, otsaila,... Sokari geroz eta azkarrago eragingo zaio saltoka ari denak huts egin arte.*

Adibide honetan gainera, hilabeteak erreparatzeko aukera paregabea eskaintzen du, modu entretenigarri baten bidez. Ariketa hau ere molda daiteke, eta hilabeteen orde, lantzen ari diren edozein gaiko hitzak erabil dezakete.

• URTEBETETZE JOLASA:

Hilabeteekin jarraiki, ondorengo jolas honetan ere hilabeteak aipatzen eta lantzen dira. Ariketa hau ikasgelan haurren urtebetetzea denean kantatzeko da.

Hilabeteak banan banan erraten dira. Hasieran guztiak makurturik jarri eta jaiotza hilabetea aditzean zutitu eta saltoka hasi behar dute. Geldi geldik egon erratean guztiak geldirik egon behar dute.

Urtarrilean jaio dena
Zutitu dadila
Otsailean jaio dena
Zutitu dadila
Salto saltoka
lagunak agurtuz
agur agur agur, itxaron
geldi geldik egon

Martxoan jaio dena
Zutitu dadila
Apirilean jaio dena
Zutitu dadila
Salto saltoka
Lagunak agurtuz
Agur agur agur, itxaron
Geldi geldik egon

- KANPOKA

Lurrean zero handi bat margotzen da eta bere inguruan ttikiagokoak diren bertze zero batzuk. Erdiko zeroan dagoenak bertze partaideak harrapatu behar ditu. Hauek bitartean, zero ttietatik ibiliko dira. Behin, bat harrapatuta zero handira eraman behar da. Parte-hartzaile guztiak zero handiaren barruan daudenean akituko da joko.

- URTXINTXAREN JOKOA (esku jokoa)

Jokalari guztiak biribilean jarriko dira eskuak honela dituztela: eskuineko eskua gure eskuinean dagoen pertsonaren eskuaren gainean eta ezkerreko eskua gure ezker aldean dagoen pertsonaren eskuaren azpian.

Abesten hastearekin batera jokalaria batek eskuineko eskuarekin bere ezker aldean dagoen lagunaren eskuineko eskua joko du. Abestiaren erritmoa jarraituz jokalaria guztiek banan-banan ezker aldean duten jokalarien eskua joko dute.

Azkeneko hitzaren (...DUZU) azkeneko silabara (-ZU) iristerakoan, jotzeko txanda egokitu zaion ezkerreko jokalaria eskuineko eskua kentzen saiatuko da. Eskukineko jokalaria, aldiz, ezkerreko jokalaria eskua jotzen saiatuko da. Ezkerreko lagunak eskua garaiz kentzea lortzen badu eskuinekoak musu eman beharko dio. Eskuineko lagunak ezkerrekoaren eskua joz gero, ezkerreko jokalaria musu emango dio.

*URTXINTXAREN JOKOA DA
EZKUTA EZAZU ESKUA
BESTELA JOTZEN BAZAITUT
MUXU EMAN BEHARKO DUZU*

*URTXINTXAREN JOKOA DA
EZKUTA EZAZU ESKUA
BESTELA JOTZEN BAZAITUT
MUXU EMAN BEHARKO DUZU*

Jolas hau ondorengo webgunean aurki dezakezu:
<http://www.aisia.net/jolasak/esku-jolasa/urtxintxaren-jokoa>.

Hala ere, ikasleek ere beren guraso edota amatxi-aitatxi aritzen ziren jokoak ere ekar dezakete. Horretarako, ondorengo fitxa hau etxera eraman, bertan bete eta eskolan *Baztango Joku Zaharren* liburuxka sor dezakete.

IZEN-ABIZENAK: _____

Jokoaren izenburua: _____

Azalpena: _____

Honetaz gain, *Baztan Solasean* (Lakar eta Telletxea, 2006) liburuan joko gehiago agertzen dira eta guztiak behar bezala azalduak.

Sinesmenak, mitologia eta legendak

Ezagunak dira sorginen, lamien, basajaunen,... istorioak. Lehendik eratorriak dira. Baina badaude, bertakoak ditugun istorioak ere, eta haurrei

eskolan kontatzea egokia izango litzaketenak. Hona hemen *Baztango Ipuinak* (2007) bildumatik ateratako adibide bat:

KASU AUZAN

“Zenbait elezaharrek diotenez, ba omen zen Auzan leize bat eta leize horretan urre aunitz altxapean. Aker eta sugetzar batek ederkixko zaindua, gainera. Erraten denez, ez omen dira guti izan urre horretaz jabetzeko egin diren saioak. Batzuk errezuen bidez entseatu omen ziren; erdiesten omen zuten sugetzarra ttikiagoa egitea, baina ez askitsu nonbait, harengana hurbildu bezala berriz loditu baitzen. Bertze batzuk, aldiz, ostia bat bularraldean paratzen omen zuten, baina sugetzarrak ez jatea baizik ez zuten erdiesten. Hortik, heldu da erranairu hau: <<Auza, han baduk gauza, baina nehork ezin har>>.”

Ongi egongo litzateke, astean behin ikasle batek etxean galdetuta, istorio hauetako bat kontatuko balu gainontzeko ikaskideei. Horretarako, ikasle bakoitzak horrelako papertxo bat eramanen du etxera betetzeko:

Ikaslearen izen abizenak: _____

Gurasoen izen-abizenak: _____

Gurasoen jaioterria: _____

IZENBURUA: _____

Modu honetan, ikasleen istorio guziekin liburuxka bat sortuko dugu eta bakoitzak bere etxera eramateko aukera izanen du.

Ikasle koxkorragoekin, adibidez, 3. zikloko ikasleekin grabaketak ere egin daitezke. Hau da, beren aitatxi-amatxiren istorioren bat grabatu, ondoren eskolan entzun eta transkribatu eskolan bertan uzteko edota liburuxka bat sortzeko.

Bertze ariketa bat izan daiteke, grabatu nahi ez bada, ikasleen aitatxi-amatxi edota gurasoak eskolara ekarri eta beraiek lehenengo pertsonan beren bizipenak kontatzea. Horretarako, ikasleek galdera sorta bat prestatu beharko lukete, ondoren aitatxi-amatxiei galdetzeko. Hona

hemen, sor daitezkeen galderen adibide batzuk:

- *Eskolara joaten zineten? Nolakoak ziren lehengo eskolak?*
- *Nola joaten zineten baserritik herrira?*
- *Zer egiten zenuten zuen denbora librean?*
- *Zein hizkuntzatan solastatzen zineten?*
- *Jostailurik erabiltzen zenuten? Zeintzuk?*
- *Nolako arropak erabiltzen zenituzten?*
- ...

Bertzalde, bai ipuinekin eta baita legenda edota mitologiako istorioekin ere, haurrek antzerkiak sor ditzakete, gero bertze mailako ikasleen aurrean antzezteko.

3.2. Etxean, familiarekin edota lagunekin erabiltzeko baliabideak.

Etxean lan daitezkeen proposamenei dagokienez, aipatu eskolan bezala, bai ipuinak, legendak eta jokoak ere etxean lan daitezkeela. Izan ere, familiaren laguntza beharko baita lehen aipatutako ipuin zein jokoen fitxak bete ahal izateko.

Beharrezkoa da familiaren eta irakaslearen arteko koperazioa. Izan ere, haurrak berak etxera material hauek eramán ditzake edo irakasle eta gurasoen artean esparru bakoitzean zer landu ados dezakete. Hau da, bilera baten bidez, familiak irakasleari eta irakasleak familiari ahozko tradizioaren inguruan duten ezagutza transmititu dezakete, gero hauek, bakoitzak bere esparruan, haurrei ezagutarazteko. Beraz, nire ustez, egokiena da, etxean erabiliko diren baliabideak gurasoek beraiek beren seme-alabei irakastea eta eskolan erabiliko direnetaz irakaslea arduratzean; beti ere, bai maisu-maistrek eta baita gurasoek elkarren berri izanik. Modu honetan, gainera, haurrak ez du soilik eskolan baliabide hauek lantzen direla ikusiko, baizik etxean ere, gurasoek bertze baliabide batzuk dituztela ohartuko dira eta beraiendako aberasgarri izateaz gain, hauen erabilera ohitura bihurtuko da.

Bertzalde, 2005. urtean Tuku-Keta mahai-jokoa sortu zen eta bertan, Baztango bailarako hitzak, ohiturak, historia, ... ikasteko aukera dagoen era dibertigarri

baten bidez. Baliabide hau arras erabilgarria izan daiteke bai kalean baita etxean ere jolasteko.

Gogoratzen dut, erori eta mina hartzen nuen bakoitzean bai nire amatxik eta baita nire amak ere zenbait kanta kantatzen zizkidala. Horiek ere, Baztan Solasean liburuxkan bilduak daude. Hala nola,

“Senda senda mine

Asto kakurrine

Sendatu da mine.”

Erratzu

“To txarra, karrak berrie, osk-oxkatue

ta karrak len bai len.”

Almandoz

Kanta horiek ohikoak dira guraso eta seme-alaben artean. Bertzalde, sehaska kantak ere badaude.

Bollon bat

“Bollon bat eta bollon bi

Bollon putxura erori

Erori bazen erori

Ez da gehiago yaberik.

Bollon bat eta bollon bi

Bollon putxura erori

Bollon bat eta bollon bi

Bollon putxura erori.”

Erratzu

Haurra egizu bi lolo

“Aurra egizu bi lolo

Nik emango dizut bi koko

Orain bat eta gero bertzia

Arratsaldian txokolatia

Aurra egizu bi lolo

Nik emango dizut bi koko.”

Irurita

Eragidazu

*“Eragidazu eragidazu
Laster haziko natzaizu
Laster hazi ta ongi lagundu
Mesede izango nauzu.”*

Kasu honetan, kanta

<http://www.aisia.net/jolasak/sehaska-kanta/eragidazu> webgunetik hartu dut. Bertan, gainera, bideo bat dago adibide batekin.

Gurasoez gain, haurrek beren anai-arreba ttikiagokoei kantatzeko kanta edo formulak ere erabil ditzakete, beren arteko elkarreragina indartzeko.

Kukurruku!

*“Kukurruku!
Zer duzu?
Buruen min.
Nork in?
Axeriek.
Axerie nun da?
Goitiko bordan.
Zer ai de?
Arto ereiten
Artoa zertako?”*

Olloindako.

Olloa zertako?

Arroltzia iteko.

Arroltzia zertako?

Apezaindeko.

Apeza zertako?

Meza mateko.

Meza zertako?

Mundu guzie salbatzeko.”

Ziga

Talo txin

*“Talo txin, talo txin
Gure aurrak bort otxin
Bortotxinen saria
Xamari xarrian karria
Aitetxi, amatxi zatozte
Opil aundi banaikin
Denak ase gaitezin.”*

Arizkun

Arre -arre mandoko

*“Arre-arre mandoko
bihar Iruñerako
andik zer ekarriko
Mandua bete goxo
Ok norendako?
Denak aur unendako!”*

Ornoz

Ikusi Makusi

Igarkizunetarako “Ikusi-makusi” herrikoia dakargu musika berrituarekin. Kantuaren bukaerarekin batera asmatu behar den hitzaren hasierako silaba eman behar da beste jokalariek hasiera hori duen hitza asma dezaten. Igertzen duenak proposatzen du hitz berria.

Ikusi makusi.

Zer ikusi?

gauza bat

Zer gauza?

Hasten da..... Ar-z eta akitzen da A-rekin. (ARMAIRUA)

Etxetxo bat

Haurrari hasieran kilimak egin eta ondoren aurpegiko bere atalak ukituko ditugu etxe batekin parekatuz.

“Etxetxo bat, ttiki-ttikia

Bi lehiotxo

Atetxo bat

Eta rin!”

Etxea -----> aurpegia

Lehioa-----> begia

Atea----->ahoa

Rin-----> tinbrea

Honetaz gain, *Baztan solasean* (2006) liburuxkan, lehengo aitatxi-amatxien kontakizunak aipatzen dira. Liburu egokia da, etxean hurrekin lantzeko; izan ere, bertan, kantatzen zituzten haur kankak, formulak, haurtzaroko kontakizunak, eskolari buruzkoak, euskara eta erdararen inguruan,... hitz egiten dute eta haurrentzat interesgarria izan daiteke beren amatxi eta aitatxiren bizi moduaren berri jakiteko.

Hala ere, nahiz eta *Baztan Solasean* liburuan egon, politagoa eta erakargarriago da aitatxi eta amatxiren ahotik entzundako istorio, legenda edo kankak.

Horrelakoetan, familiarterko giroa sendotu egiten euskara hizkuntza indartuz eta haurrentzat ere aberasgarriagoa izan ohi da.

Honetaz gain, www.aisia.net webgunean ere, jolasen atalean, etxean egiteko bertze hainbat jolas ezberdin daude; soka salto jolasak, ezkutaketa jolasak, behatz jolasak, esku jolasak, sehaska kantak, ..

3.3. Ahozko baliabide hauen bidez lortuko ditugun hobekuntzak.

Bertze ikasgaietan egiten den bezala, irakasleak edozein ariketa planteatzen duenean helburu zuzen batekin egiten du; ariketa horrekin zerbait lortu nahi duelako.

Hori gertatu zait niri aurreko ataleko proposamenak sortu ditudanean; izan ere, ahozko tradiziozko baliabide horien bidez, ikasleek beren euskara mailan hobekuntza batzuk izango baitute.

Hala ere, aipatu nahiko nuke, sarreran erran bezala, proiektu hau ezin izan dugula ikasgelara eraman; beraz, hemen aipatuko ditudan hobekuntza hauek praktikara eraman ondoren nik espero ditudan emaitzak dira.

Haurren mintzamina maila hobetzeko proposamenetan, gehienbat, ipuinak joko ezberdinak, asmakizunak eta kantak erabili ditut. Baina, horiek era anitzetan transmititu daitezke; ahoz (ikasleek elkarri kontatuz, antzerki bidez, elkarrizketak grabatuz, aitatxi-amatxi eskolara hurbilduz...) eta idatziz (grabatutakoa transkribatuz, asmakizunak asmatuz, joko eta ipuinen fitxen bilduma sortuz...). Beraz, horien harira etorriko dira hobekuntzak; bai mintzamenaren hobekuntzak, baita idatziarenak ere.

a) Narrazioaren maila handituko da.

Ikasleek ipuinak egiten ikasten dutenean nik proposaturiko ipuinak hasteko eta akitzeko formulak erabiliko dituzte. Ohikoak diren “bazen behin...” edo “behin batean...” formulez gain, bertze hasiera batzuk ikasiko dituzte, non

beraien narrazio maila aberastuko duten; bai ahozkotasunean, baita idazmenan ere.

Horretaz gain, ipuinak elkarri kontatze horrek ere aberastu egiten die beren azaltzeko modu horretan. Gai ikusten dute beren burua, edozein ahozko narrazio egiteko baliabide ezberdinak erabiliz. Ikasleentzat ez da erreza izaten ahozko kontaketa egitea, izan ere, memorizatzeko ohitura harzten baitute. Aldiz, beren aitatxi-amatxiren istorio zahar horiek kontatzea errazago egingen zaie, beraiek ere, norbaitek kontatuta aditu dutelako eta ez dutelako nonbaiten irakurri. Horregatik, gero ahozko kontaketa horretan ulertutakoa soilik beren hitzetan errateko joera dute.

Hurrengo hobekuntzak errateko modu horri egiten dio erreferentzia.

b) Ahozko adierazmenaren eta idatzizko adierazmenaren arteko ezberdintasuna.

Ttikitatik idazten ikasten hasten garenean, beti bada ohitura ahoz adierazten duguna idatziz berdin idaztea. Gero, handitu ahala, ohartzen gara idazterako orduan arautegi bat betetzea beharrezkoa dela, eta ondorioz, ahoz adierazteko erabiltzen dugun hizkerak idazterako orduan ez du balio izaten. Arazo hau euskalkiekin gertatzen da. Adibidez, Baztanen *joan* erran beharrean *gan* erraten dugu, baina idazterako orduan *joan* idatzi beharra dugu. Bertze zenbaitzutan euskaltzaindiak baztaneraz erraten diren bertze hainbat hitz ere onartu egiten ditu. Hala nola, *fite* edo *aise*.

Horregatik, nik proposaturiko baliabide horien bidez, ikasleak idazterako orduan edo ahoz mintzatzeko orduan erabili behar diren eta erabili ezin diren hitzak eta moduak ikasiko dituzte. Errate baterako, proposatu dudan ariketa bat asmakizunak asmatzearena izan da. Ariketa honetan, ikasleak sortutako asmakizunak idazterako orduan bere idazkera kontuan hartuko du. Aldiz, kontatzerako orduan ez du zertan idatzitako hitz eta esaldi berdinak erabili behar. Berdina gertatzen da, aitatxi eta amatxiren istorioak grabatu eta transkribatu behar dituenean; izan ere, transkribatzeko orduan

idazkera formala erabili behar du, beti ere, baztaneraz erabiltzen ahal diren hitzak ere erabiliz.

Hobekuntza honek ere zerikusia du hurrengo honekin

c) Tokian tokiko hizkera estandarra.

Ahozko kontaketa horretan, ikasleak Baztango hizkera erabiltzen du. Izan ere, aitatxi-amatxiren hizkera errepikatzen baitu. Ikasleak oraindik ez da gai, aitatxi-amatxik erabilitako hizkera hori batzen, beraz inkontzienteki tokian tokikoa den hizkera hori mantentzen ari da. Puntu hau ere arras garrantzitsua da, hizkera honek bertze euskaldunengandik bereizten gaituelako. Beharrezkoak dira euskakiak babestea herriaren izaera defenitzen dutelako.

Beraz, haur kantekin, aitatxi-amatxiren ipuinekin, joku formulekin... Baztango hizkera babestu eta erabili egiten dute. Horrekin loturik dago, onomatopeien lanketa ere. Zenbait jokoetan erabiltzen diren kantetan onomatopeiak garrantzitsuak dira eta hauen erabilera beren mintzamenean erabiltzen jarraitzen dute (ttikitan hitzak erraten ikasi baino lehen sinpleagokoak diren onomatopeiak erraten ikasten baitugu).

d) Euskara eskolaz kanpoko bizitzarekin ere lotzen dute.

Euskalduna ez den zonaldeetan edo euskaldunak ez diren gurasoen seme-alabek, euskara eskolarekin soilik lotzen dute. Hau da, eskolan euskaraz mintzatzen dira, baina behin eskolatik ateratzen direla, gaztelanian solastatzen dira nahiz eta euskaraz beren lagunekin hitz egin dezaketean.

Baina ahozko baliabide hauen bidez, beren euskara maila, bertzeekin komunikatzeko orduan handitu eta aberastu egiten da. Izan ere, eskolan euskaraz lantzen dituzten gaiak edo gero zure lagunekin solasean zaudenean erabiltzen dituzun gaiak ez dira berdinak izaten; eta haurrak kalean ere euskaraz hitz egiten badu, hizkuntza honekiko duen komunikatzeko maila handitu egingen da. Izan ere, bai jokoak, asmakizunak eta kantak ere eskolaz kanpo erabili baitezakete.

Gehienbat lau hobekuntza horiek izan ditzakete ikasleek beren euskara mailan. Baina honetaz gain bertze hobekuntza batzuk ere izan ditzakete; ezagutza teorikoen esparrutik aldentzen diren hobekuntza hain zuzen ere:

- Taldeka jolasten, material gutxirekin eta joko sinpleen bidez.
- Elkarri errespetatzen.
- Elkarri entzuten.
- Euskararen erabilera gehiago indartzen dute.
- Beren aitatxi-amatxiren haurtzaroa eta bizimodua ikasten dute.
- Euskal kulturaren gehiago murgiltzen dira.
- ...

4. CONCLUSIONES

En las siguientes líneas, expondré las conclusiones obtenidas tras realizar el proyecto.

Antes de empezar a escribir, me tuve que informar para saber qué era la tradición oral y sobre qué trataba. Encontré más información de lo pensado, tanto para completar el marco teórico como para hacer el marco práctico. Por lo cual, la falta de material no puede utilizarse como excusa. Aún y todo, en mi opinión, la cuestión está en entender qué es la tradición oral. No somos conscientes de que dicha tradición es la herramienta más fácil y enriquecedora para promover el euskera. Esta no es una tradición actual, sino que viene de nuestros antepasados. Además, la tradición oral lejos de ser un corpus cerrado, se puede actualizar (se cambia en lugar de las historias, se añade alguna característica a los personajes...).

La segunda conclusión que he sacado y es la siguiente: en aquellos centros en el que el euskera es la lengua familiar de la mayoría de los alumnos, la tradición oral se practica más que en el resto de los colegios. Esto lo pude descubrir en las prácticas realizadas durante el curso. Como las familias de los alumnos de estos colegios son nativos, la práctica de dicho folclore es frecuente en sus casas, reflejándose esto en el vocabulario, entonación, fonética... de los alumnos. Sin embargo, en zonas más catellizadas como es la comarca de Pamplona, el uso del euskera es débil, y por consiguiente es más difícil encontrar recursos de la tradición oral. Por lo que es patente la dificultad expresiva que tienen al hablar en euskera.

Por otro lado, es importante que los docentes sean conocedores y que tengan sensibilidad sobre la importancia del folclore infantil. Es una ventaja que la profesora sea de la misma zona, ya que es conocedora de dichos recursos. De esta manera, puede transmitirlos con más facilidad, teniendo en cuenta que en su niñez los aprendió y los utiliza en su día a día. Los alumnos, al tener tendencia a imitar las palabras y gestos de sus profesores/as, puede ocurrir, que también imiten el uso de la tradición oral.

En cambio, si la profesora no es de la zona o en las escuelas que el euskera no está muy presente, es muy difícil encontrar rastros del folclore infantil. Por eso, es

importante que los docentes sean conocedores de dichos recursos y conscientes del valor que tienen para la mejora de la expresión oral en euskera de los alumnos, ya que, mediante el juego y la diversión mejoran el uso de dicha lengua.

Mientras buscaba propuestas para promover la tradición oral, me dí cuenta de que dependiendo del planteamiento que se le dé a este tema, podemos obtener una u otra respuesta por parte de los alumnos. Es decir, si planteamos una Unidad Didáctica, está claro que los alumnos tendrán opción de aprender mucho, pero se les hará difícil su uso en la vida cotidiana. Esto puede hacer que se lo tomen como una asignatura más y solo lo empleen dentro del aula. De todas formas, hacer una Unidad Didáctica no está mal pensado, ya que, con un correcto planteamiento y el aporte del profesor puede hacer que el resultado sea diferente. Es decir, si en vez de hacer los ejercicios solo dentro del aula, se usan otros lugares (como puede ser el patio), los alumnos no tienen por qué relacionar el ejercicio con el aula. Ya que lo usaran en los recreos y de esta forma les será más fácil relacionarlo con su vida cotidiana. Lo mismo puede pasar, si los ejercicios planteados no son dinámicos y solo se trabaje con la teoría. Los alumnos se tienen que dar cuenta de que jugando con estos recursos del folclore infantil, además de mejorar y enriquecer su expresión en el euskera, se están divirtiendo. De esta forma, los juegos aprendidos en la escuela pueden llevarlos a casa y jugar con su familia y amigos, promoviendo el euskera indirectamente e introduciéndolo en sus vidas.

Teniendo todo esto en cuenta, es importante mantener y preservar la joya heredada por nuestros antepasados para transmitírselo a futuras generaciones.

5. BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M. (1966). *Euskalerrriaren Yakintza* (2. lib.). Madril: Espasa-Calpe.
- BARANDIARAN, J. M. (1973) *Eusko-Folklore. Obras completas*. (2. lib.). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- COLOMER, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril: Síntesis.
- IGARABIDE, J.K (2003). *Haur poesia eta ahozko tradizioa*. Sancho el Sabio. Estudios Vascos.
- ETXEBERRIA, I. eta KALZAKORTA, J. (2009ko abenduan). *Herri literatura*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- LEKUONA, M. (1964). *Literatura oral vasca*. San Sebastian: Auñamendi.
- JUARISTI, J. (1987) *Literatura vasca*. Madrid: Taurus.
- KORTAZAR, J. (1997). *Euskal literaturaren historia txikia*. Erein.
- LAKAR, M. eta TELLETXEA, A. (2006). *Baztan Solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Iruñea: Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua.
- Xorroxin irratia. (2007). *Baztango ipuinak*. Iruñea: Dindaia fundazioa.

ERABILITAKO WEBGRAFIAK:

- UNESCO [Sarean: <http://www.unesco.org/culture/ich/?lg=es&pg=00053>]
- Eusko Jaurlaritza (Sarean: https://euskadi.net/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c1701/eu_d1701010/1701010.html)
- Eusko Jaurlaritza (Sarean: http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0301/eu_d0301012/0301012.html)
- Jolasak lantzeko (Sarean: <http://www.aisia.net/>)

BIBLIOGRAFIA GOMENDAGARRIAK

- http://eibz.educacion.navarra.es/baliabideak/dbh/literatur_sorkun/ipuinak/ipuin_hasierak_irakas.htm
- <http://www.ikastola.webatu.com>
- Baztango Udala. (2005). *Tuku-keta mahai jokoa*.

- Nafarroako Gobernua eta Malerrekako mankomunitatea. (2006) *Malerreka Solasean. Ahozko tradizioaren bilduma.*